

Egitura

Inor ez du epel utzi

«Benetako erreforma» baten bidez, argindarra garestitu du Espainiako Gobernuak, eta sariak txikitu dizkie energia berriztagarriei eta banatzaileei.

Miren Garate

Erreforma izena merezi duen bakarra dela esan zuen Jose Manuel Soria Espainiako Industria ministroak, uztailaren 12an, ministroen kontseiluak energiaren erreforma onartu zuenean. Kontuan hartuta aurreproiektu bat, lege dekretu bat, zortzi errege dekretu eta hiru ministro agindu garatu ostean gauzatuko dela, aldaketak badakartzala ondoriozta daiteke bai. Oraindik ez dira publikatu haiek guztiak, beraz, goiz da ondorio zehatzei buruz hitz egiteko. Baina dagoeneko alde guztietatik egin dizkionte kritikak: kontsumitzaileek, tarifak garestituko direlako; familia ugariak, bonu soziala izateko aukera mugatuko zaielako; energia berriztagarrien konpainiek, diru laguntza gutxiago izango dutelako; eta argindar enpresa tradizionalak, argindarra banatzearen truke jasotzen duten ordaina txikituko zaielako.

Espainiak 26.000 milioi euroko tarifa defizita du, datu hori dago erreformaren abiapuntuan. Hau da, argindarra sortzearen kostua handiagoa da kontsumitzaileek hura erabiltzeagatik ordaintzen duten prezioa baino, eta horrek urte urte zuloa handitzea eragiten du. Gobernuaren esanetan, 2013rako ere 4.500 milioi euroko defizita zegoen aurreikusita. Erreformaren bidez kopuru hori hutsera emango duela agindu du orain, eta, horretarako, «esfortzuak denen artean banatu» behar direla erabaki du. Hau da planteatutakoa: 2.700 milioi euro argindar konpainiek hartzea euren gain, ordainsari txikiagoak jasota; 900 milioi estatuak jartzea aurrekontuetatik; eta gainerako 900 milioiak kontsumitzaileek ordaintzea, tarifen kostu finkoak handituta.

Kontsumitzaileek, %3,2 garestiago

Hasteko eta behin, abuztuko fakturan bertan nabarituko da erreformaren eragina. Bi zatitan banatzen da argindarraren prezioa. Alde batetik, kostu finkoa dago, elektrizitatearen banaketa, garratza, berriztagarrien eta ikatzaren sariak, hondakin nuklearren tratamenduak eta halakoak ordaintzeko. Zati hori fakturaren erdia ingurukoa izaten da, eta gobernuak %6,5 igotzea erabaki du.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

16 Energia erreforma

(Aurreko orrialdetik dator)

Hala, Soriak kalkulatu du, batez beste, %3,2 garestituko direla fakturak. Beste erdia, argindarra sortzearen kostua, hiru hilean behin egiten den enkante baten bidez erabakitzen da —urrian izango da hurrengoa—, eta orduan are gehiago garestitu daiteke, edo merkatu.

Hainbat familia ugari, bonu soziala galtzear

Kontsumitzaile ahulenei laguntzeko bonu soziala deitutakoa sortu zuten. Ondorengo lau baldintzetako bat betetzen zutenek zeukaten hura eskuratzeko aukera: hiru kilowattiotik beherako potentzia zutenek kontratatuta, 60 urtetik gorako pentsioduna izan eta hilero diru sari txikia kobratzen zutenek, familia ugariak edo etxeko kide guztiak langabezia zutenek. Aurrerantzean ere horiek guztiak izango dute bonu soziala eskatzeko aukera, baina bada aldateta handi bat, errenta ere kontuan hartuko baita aurrerantzean.

Familiako lehen kidearentzat lanbide arteko gutxieneko soldataren %120an finkatu du gobernuak muga (urtean 10.841 euroan); bigarren kidearentzat, %70ean (7.588 euroan); eta handik aurrerakoentzat, %50ean (5.420 euro). Hau da, hiru seme-alabako bikote batek gehienez ere 34.689 euroko errenta izan behar du urtean bonu soziala edukitzeko. Kategoria bereziko familia ugari batek —bi guraso eta bost seme-alaba—, berriz, 45.529 eurokoa. Orain artean, familia ugari guztiak zuten bonu soziala izateko eskubidea.

«Guretzat kolpe gogorra izan da erreforma», dio Natalia Diaz Caballerok, Hirukide Euskadiko kide ugari familia elkarteko zuzendariak. «Minduta gaude. Gainera, gehienezko zifra horiek ez dira batere altuak, umeak mantendu behar izateko beharrezkoak dira halako errentak». Bonu soziala edukitzeko eskubidea mantentzen dutenei ere garestituko zaiela argindarra nabarmendu du. «Tarifa izoztuta dago 2009tik, baina orain esaten dute aldatu egingo dela. Orduan bai edo bai egingo digu kalte erreformak. Gaur egun, bonu sozialaren bidez, familia ugariak %20-%30 artean aurrezten zuten».

Horrez gain, Hego Euskal Herriko familien eta Espainiako hainbat gunetako familien errenta mailek ere ez dutela zerikusirik gaineratu du. «Hemen bizitza kostua handiagoa da, eta denentzat errenta maila berbera jarrita, kalte handiagoa egiten zaigu». Hirukidek ez daki zenbat familiak galduko duten tarifa hori izateko aukera, baina portzentaje nahiko handia izan daiteke. Go-

bernuaren datuen arabera, gaur egun 2,7 milioi etxetan dute bonu soziala. Iaztik, argindarraren kostu finkoaren bidez egiten zaio aurre gastu horri, baina erreformaren ostean, argindar konpainiei egokituko zaie ordaintzea.

Autokontsumitzaileak, zergapetuta

OCU kontsumitzaileen elkarteak emandako datuen arabera, azken sei urteetan %56 garestitu da argindarraren salneurria Espainian. Gaur egun, zergak kontuan hartuta, 0,23 euroan dago kilowa-

ttio orduaren prezioa, eurogune-ko batez bestekotik gora. Gobernuak erreformaren kostua denon artean banatuko duela adierazi arren, halakorik ez dela gertatuko salatu du OCUk. «Argindar enpresek kontsumitzaileari pasako diote euren zatia. Ondorioa zein den? Doiketaren zatirik handiena kontsumitzaileek pagatu behar du dutela».

Igoera horien eraginak saihestu nahian, eta batez ere energia berriztagarrien erabilera sustatzeko helburuarekin, azken urteotan hainbatek egin dute autokontsumoaren aldeko apustua

edo energia kooperatibak sortu dituzte. Haiei ere eragingo die erreformak. Gobernuak Espainiako Energiaren Batzorde Nazionalari igorritako zirriborro baten arabera, zergapetu egingo du eraikin batean sortu eta han kontsumitzen den elektrizitatea. Kritika handiak eragin ditu neurriak, norbere baratzeko barazkiak kontsumitzeagatik zergak ordaintzearen moduko neurri bat dela ere iruditu zaio zenbaiti. Horrez gain, autokontsumoko azpiegituren bidez sortu eta sobera geratzen den argindarra sare orokorrera igortzen dutenei ez

ordaintzea ere aurreikusten du Industria Ministerioak.

«Argindarraren autokontsumoa bideraezina izango da ekonomikoki», gaitzetsi dute energia berdeen kooperatibetako ordezkariak aste honetan Madrilen egindako agerraldian. Goienerreko kideek ere babestu zuten ekitaldi hura. Orain bi urte sortutako kooperatiba da Goiener, eta merkatuan energia berriztagarria erosi ostean, bazkideen artean saltzen du prezio berean. «Energia hornitzaile gisa egiten dugun lar horregatik badakigu finantza oztopoak izango ditugula, izan ere, komertzial guztioi berme batzuk aurreratzeko eskatuko digute», adierazi du Pello Insausti bazkideak. Berme horien helburua berankortasuna gutxitzea izango da, baina oraindik ez dakite zenbatekoak izango diren.

Oraingoz banatzaile lanak egiten dituen arren, Goienarren nahia da bazkide kopuru handia lortu eta energia berriztagarrien azpiegituraren bat jartzea, energia eurek sortzeko. «Gure erronka independentzia energetikoa da, baina produktore independentea izatea gero eta zailagoa da, berriztagarrien arloan zalantza pila bat sortu dituztelako». Insaustiren esanetan, energia berriztagarriak gero eta laguntza gutxiago dituzte, eta gaur egun, laguntzarik gabe, ezin da azpiegiturarik jarri, «teknologia berriek ezin dutelako zaharrekin lehiatu

hasiera batean». Haren esanetan, ordea, segurtasun falta da sektoreari kalterik handiena egiten dion faktorea. «Dagoeneko errentagarritasuna asko murriztu dute, baina askoz gehiago murriztu dezakete. Argindar konpainiek sekulako boterea dute, Espainiako eragin talde nagusia dira, eta gobernuak energia tradizionala babestu nahi du».


Espainiak energia berriztagarriekiko duen jarreraren aurka salaketa bat baino gehiago jarri dituzte hainbat taldek Bruselan, tartean Goienerre berak. Insaustik ez du ulertzen gobernuaren jokabidea. «Alemaniak, iaz, Espainiak historia osoan baino gehiago inbertitu zuen potentzia fotovoltaiakoan. Zenbat eguzki egiten du Alemanian? Ba, hala ere, inbertitu egiten dute, eta errentagarria dela esaten dute. Espainiak, berriz, eguzki ordu bikoitza izan arren ez dela errentagarria dio».

Halako energia erreformarik ez zuen espero Josu Salazarrek ere. Ekidomeko kudeatzailea da, eta energia berriztagarrien arloko era guztietako azpiegiturak jartzen ditu enpresa horrek. «Guk kontrakoa espero genuen, araudi berriak autokontsumoari laguntzea, baina dirua eman beharrean dirua biltzea erabaki dute. Gobernu hau eta argindar konpainiak eskua emanda doaz».

Etxeko argindar kontsumoaren prezioa

Espainiako bilakaera

Euro KiloWat orduko (zergak barne)



ITURRIA: EUROSTAT

Europa

Euro KiloWat orduko (zergak barne), 2012ko bigarren seihilekoan



Tarifa defizitaren gakoak

■ **Zer da tarifa defizita?** Argindarra sortzearen kostua handiagoa da kontsumitzaileek hura erabiltzeagatik ordaintzen duten prezioa baino, ondorioz, tarifa defizita sortzen dela esaten da.

■ **Zenbateko tarifa defizita du Espainiak?** Urtez urte handituz joan da, eta 2002. urteaz geroztik 26.062 milioi euro pilatu dira. Horiei batu behar zaizkie dagoeneko ordaindu diren 10.000 milioi. Zor hori titulu bihurtu eta saldu du estatuak, eta haren interesak ere pagatu behar dituzte herritarrek.

■ **Nola sortu zen halako defizita?** Mende honen hasieran Espainiako gobernuak erabaki zuten energia berriztagarriak bultzatzea. Inbertsio handiak egin behar zituen sektoreak, eta horien zati bat herritarrek pagatu dute orduz gero, beren fakturen bidez. Kontua da uste baino bultzada handiagoa jaso zuela sektoreak —inbertsio gile askok errentagarritasun handiak ikusi zituzten, eguzki energian batez ere—, eta sari horiek estaltzeko adina ez dira igo

fakturak. Iaz, %22 handitu ziren sariak, nahiz eta gobernuak instalakuntza berriei ez ematea erabaki zuen.

■ **Orduan esan daiteke energia berriztagarriek sortu dutela tarifa defizita?** Ez haiek bakarrik. Ez. Espainiako Gobernuak emandako datuen arabera, berriztagarriak eta ziklo konbinatuko zentralen kostua %497 handitu da 2003az geroztik. Banaketarena %66 igo da, garraioarena %52, eta beste kostuak, berriz, %40. Tarifaren kostu finkoen bidez ordaintzen dira ikatz sektoreak jasotzen dituen laguntzak, hondakin nuklearrak tratatzeko gastuak... Beste batzuek, berriz, esaten dute Espainiak energia ekoizteko gaitasun handiegia duela. 2005etik 2011ra, %35,7 handitu zen instalatutako potentzia, tarte berean, ordea, %3,4 soilik handitu zen kontsumoa. Gehiegizko gaitasun hori mantentzeak gastu handia sortzen du.

■ **Espainiako Gobernuak onartu berri duen energia erreforma hau al da orain arte hartutako neurri bakarra?** Ez.

Batetik, kontsumitzaileek pagatzen dutena asko igo da azken urteotan. OCU kontsumitzaileen elkarteak jakinarazitako datuen arabera, azken sei urteetan, krisia hasiz geroztik alegia, %56 garestitu da argindarraren prezioa. Gainera, sariak txikitu dizkiete energia berriztagarriak. Azken urtean, PPK zerga berriak ezarri zizkien argindar konpainiei, eta gutxiago ordaindu die banatzeagatik eta garraiatzeagatik. Horri esker, defizita 4.500 milioi euro handitu da 2012tik, eta ez 10.500 milioi. Orain nahi duena da 4.500eko kopuru hori hutsera jaitea.

■ **Hainbesteko tarifa defizita badago, argindar konpainien emaitzak ere kaskarrak izango ziren, ezta?** Ez. Iberdrolak 2.841 milioi euro irabazi zituen joan den urtean, eta Endesak, 2.034 milioi. Egia da, ordea, irabaziaren zati gero eta handiago bat atzerrian eskuratzen dutela. Iberdrolak, esaterako, 862 milioi irabazi zituen iaz Hego Euskal Herrian eta Espainian, aurreko urtean baino %36 gutxiago.

Salazarren esanetan, arrisku bat sortuko du erreformak: jendea legez kanpo aritzea. «Legearen barruan jardunez gero, garestitu egingo da guztia. Lehen asko kostatzen zen halako azpiegiturak saltzea, eta gauzak garestitzen badira, geratu egingo da sektorearen bilakaera». Dagoeneko jarrita dauden azpiegiturak kenduko direnik ez du uste, baina haiek eragindako inbertsioak amortizatzen urte gehiago beharko dira. «Orain hamabost urte inguru behar izaten dira hasierako inbertsioak amortizatzen».

Berriztagarri, goitik beherako aldaketa

Hain zuzen ere, haserrikerik handiena energia berriztagarrien arloan aritzen diren enpresen artean eragin du erreforma berri honek. Soriaren esanetan, gobernuak energia berriztagarrien aldeko apustu argia egiten jarraitzen du, baina nabarmendu du kontsumoak jakin behar dutela horrek kostu ekonomiko handia duela. Adibide gisa, esan du megawattio bat ekoizteak, batez beste, 50 euroko kostua duela Espainian, baina, energia eolikoaren bidez produzituz gero, 90 eurokoa, eta energia fotovoltaikoa bada, 450 euro. Gobernuak tarifa defizitaren eragile nagusizat hartzen ditu energia berriztagarriak. Orain urte batzuk, haiek bultzatzea erabaki zuen, eta, horretarako, kontsumitzaileak behartu zituen inbertsioen zati bat ordaintzera. Sektoreak, ordea, uste baino bilakaera handiagoa izan du, eta fakturen igoera ez da aski izan energia berriztagarriek jasotako laguntzak estaltzeko.

Gobernura iristean, inbertsio berriei sariak ezabatu zituzten Soriak; orain, martxan dauden proiektuei ere laguntzak gutxituko dizkie. Ofizialki, diru laguntzak bukatuko dira, eta aurrerantzean «inbertsio kostuengatik osagarria» izenekoak jasoko dute. Espainiako hamar urteko bonua gehi 300 puntuko laguntza bermatuko zaie, %7,5 gaur egun.

«Gaur egungo ordainsariak goitik behera aldatuko dira, eta arrazoizko errentagarritasuna



Energia berriztagarriari ematen saizkien laguntzak txikitzea da Espainiako Gobernuak hartu duen neurrietsako bat. JENS BUETTNER / EFE

bermatu nahi da oraindik jakinarazi gabeko parametroen bidez», azaldu du Jose Manuel Villarig Appa Energia Berriztagarrien Ekoizleen Elkartearen presidentek. Eta gaineratu du gobernuak berak egindako kalkuluen arabera, 1.300 milioian murriztuko direla diru sarrerak. «Doiketa hori erregimen bereziko sarreraren %15 da, eta, gainera, gehitu behar zaio sektoreak dagoeneko nozitu dituenen. Kasu batzuetan sarreraren %40 ere izan dira doiketak. Beraz, azpiegitura askok porrot egingo dute, ezingo dituztelako itzuli finantzaketarako erabilitako maileruak». «Iruzurra, basakeria juridikoa eta gehiegikeria» hitzekin definitu du erreforma Appak.

Argindarra banatzeak, ordainsari txikiagoak

Argindar enpresa handiekin soilik pentsatutako erreforma dela leporatu diote gobernuari, baina haiek ere ez daude ados proposa-



Bonu sozialaren bidez, familia ugariak %20 eta %30 artean aurrezten zuten»

NATALIA DIAZ CABALLERO
Hirukideko zuzendaria

«Erreformaren bidez, gobernuak energia tradizionala babestu nahi du»

PELLO INSAUSTI
Golenerreko bazkidea

«Kontrakoa espero genuen: araudi berriak autokontsumoari laguntzea»

JOSU SALAZAR
Ekidormeko kudeatzailea

tutako neurriekin. Argindar banatzaile guztiei eragingo die erreformak, gobernuak erabaki baitu gutxiago ordainduko zaiela banatzaileetatik eta garraiatzaileetatik. Hamar urteko bonua gehi 200 puntu pagatuko die sistemak aurrerantzean, %6,5 inguru. Horrek esan nahi du urtean 2.500 milioi gutxiago izango direla haien zati, erdibana berriztagarriekin.

Gogor hitz egin du, esaterako, Ignacio Sanchez Galar Iberdrolako presidentek. Haren hitzetan, tarifa defizitaren arazoa ez da konponduko, «benetako arazoa energia heldugabeek jasotzen dituzten laguntzen igoera esponentziala da, energiaren %4 bakarrik jartzen duten arren, sistemaren kostuak %30 garestitzen dituzte». «Bidegabeak» iruditu zaizkio proposatutako neurriak, «defizita sortu ez dutenek egin beharko diotelako aurre gehienbat».

Iberdrolak adierazi du aurten 170 milioi euroko gastua eragingo diola erreformak —energia be-

rriztagarrien arloko doiketak kontuan hartu gabe—, eta kopuru hori 90 milioi handiagoa izango dela datorren urtean. Neurri guztien berri izan ostean ez direla justuak ikusiz gero eskura dituen neurri juridiko guztiak erabiliko dituela iragarri du, akziodunak babestu eta ordainsarrietan justizia egiteko.

Gobernuak, Soriak nahi baino esfortzu txikiagoa

Erreforma inoren gustukoa ez izatea seinale ontzat hartu zuen Soriak, baina gobernuan bertan ere izan ziren eztabaidak. Defizitaren 1.800 milioi estatuko aurrekontuen bidez estali nahi zituen Soriak, baina ezezko borobila eman zion Cristobal Montoro Ogasun ministroak. Hainbeste diru jarritz gero defizit publikoa kontrolatzeko zailtasun handiagoa izango zuela zioen. Hala, 900 milioirekin konformatu behar izan du Soriak.



FAGOR
FAGOR ARRASATE Koop. E.



Mundua merkatutzat
globalitatea behartzat
tokikotasuna aukeratzat
euskara lan tresnatzat

www.fagorarrasate.com